

Donostia eta ni

Hilabete barru Donostiako hainbat aisialdi talde udalekuetara joango dira. Xirimiri gazte taldea Nafarroara abiatuko da urtean zehar ikasitako baloreak praktikan jarri eta, bide batez, ondo pasatzera. **TESTUA Aitor Jordana ARGAZKIA Ainara García**

Uda aberasgarri bati begira

BORJA Ruiz zortzigarrenez joango da begirale gisa Donostiako Xirimiri gazte taldeak Muzkin (Nafarroa) antolatutako udalekuetara. Donostiako elizbarrutiaren baitan sortu zen Bizi Alai astialdi taldeen federazioko kideetako bat da Xirimiri. "Guztira hogeitabat talde gara", aipatu du 25 urteko begiraleak. Urte guztian zehar haur eta gazteek zuzendutako ekintzak antolatzen ditu Xirimiri taldeak. "Proposamen jarraitua da gurea. Gabonetan eta Aste Santuan ere zenbait egitasmo prestatu ohi ditugu". Bizi Alai astialdi taldeen federazioa osatzen duten elkarrekin *Txirin-txarri*n jalan elkartzen dira.

Astiaaldian hezitzea da Xirimiri gazte taldeak duen helburu nagusietako bat. "Haurrak pertsona hobeak izan daitezten salatzen gara. Balore batzuk lantzen ditugu egiten ditugun ekintzetan. Beti ere, ondo pasa dezatela nahi dugu, noski". Ruizen ustez, udalekuek urte osoan landutakoa praktikan jartzeko aukera ematen dute. "Astebetez elkarrekin bizitzeak pertsonalki hezitzeke balio du, errespetutik abiatuta. Hori da planteamendua". Begiralearentzat ere esperientzia aberasgarria dira udalekuak: "Gauza asko ikasten dituzu eta hori ezin da ordaindu".

Ruiz uztailaren 4tik 22ra egongo da Muzkin. Donostiako elizbarrutiak etxe bat dauka herrian. Bertan, 40 pertsonarentzako lekua dago. "Kanpin denda bat jartzen dugu etxe ondoan eta 56 bat gazteak hartzen dute parte udalekuetan. Ustez, aurtien ere leku guztiak beteko dira", esan du. Uztailaren 4tik 15era 11 eta 15 urte bitarteko gazteak joango dira Muzkira. "Muzki handi deitzen diogu egitasmo honi", azaldu du Ruizek. *Muzki txiki*, aldiz, uztailaren 16tik 22ra egingo da. "Handiekin gai batzuk landu ditzakegu errealtateaz ezagutu



Borja Ruizek zortzi urte daramatza Xirimiri gazte taldean begirale lanetan.

dezaten. Etorकिनen gaia, adibidez. Haurrentzako beste motatako ekintzak antolatuta behar ditugu, jolasak gehienbat, beti ere elkarrekin transmititu nahi dituen baloreak oinarritzat hartuta".

Gaztearen esanetan, "haurren bat udalekuek kanpo gelditzen da". Eskaria eskaintza baino handiagoa delako gertatzen da. "Familiek gero eta gehiago eskatzen dute". Ostera, begiraleak aurkitzea ez da horren erraza. "Taldekoko begiralerik gazteena nintzen duela zortzi urte.

Hasiera batean ez dakizu zertan ari zaren sartzen. Begirale izateak lan asko ematen du baina merezi du. Oraindik gozatu egiten dut". Urtean zehar bileratan aritzen da Ruiz. "Astebururo antolatzen ditugu ekintzak. Aste Santua bukatu bezain pronto hasten gara udalekuak prestatzen. Egun guztietarako programazioa prestatu behar dugu, beharrezko aseguruak, erosketak...". Hamabi begiralek antolatzen dituzte udalekuak, "urtean zehar lan egiten dugunak gara. Dena den, ba-

tzuetan bestelako laguntza ezin bestekoa da", aipatu du Ruizek.

Muzki handi egitasmoan parte hartzen dutenek Xirimiri haur eta gazteek 120 euro ordaintzen dituzte (150 euro, kuota ordaindu ez dutenek). *Muzki txiki*n parte hartu nahi duenak, aldiz, 90 euro. Begiraleek ez dute kobratzen. "Nahi dugulako egiten dugu eta asko kobratuta ere, esperientzia ez litzateke aberasgarriago izango", aipatu du Ruizek. Muzkin egingo diren udalekuak bukatu ondoren, Ruiz Gasteizera

joan da begirale lanak egitera. "Aspate elkarrekin antolatutako egitasmo bat da".

Hamabost eta hemezortzi urte bitarteko Xirimiri taldeko gazteek Santiagoko bideko hainbat etapa egingo dituzte udan. "Ni ez naiz haur izango. Dena den, beste helburu batzuk loritu nahi ditugu, hauek nagusienak dira eta". Urte hauetan, gazte donostiar honi hainbat ataraldi gertatu zaizkio. "Une ahaztezinak ditut gogoan, onak denak. Gauza txarrak gutxiengoak dira".